

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA

Arabako Mendialdeko Kuadrillako udal-hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzua emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren behin betiko onespena

Iragarkia 2025eko urriaren 8ko ALHAOn (114. zk.) argitaratu zenetik, jendaurrean egon den aldian erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez denez, Arabako Mendialdeko Kuadrillako batzarrak 2025eko irailaren 29an egindako ezohiko bilkuran onetsitako ordenantza fiskala, Arabako Mendialdeko Kuadrillako udal-hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzua emateagatik tasak arautzen dituen behin betiko ordenantza fiskala onartua gelditzen da.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta indargabetu edo aldatu arte.

Santikurutze Kanpezun, 2025eko abenduaren 4an

Presidente

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

**ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAREN
UDAL HONDAKINEN BILKETA ETA
KUDEAKETA ZERBITZUAREN TASAK
ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA
ERREGULATZAILEA**

ARABAKO MENDIALDEKO**KUADRILLA****(ARABA)****CUADRILLA DE****MONTAÑA ALAVESA****(ÁLAVA)**

1. ARTIKULUA OINARRIAK, IZAERA, XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA
 2. ARTIKULUA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA
 3. ARTIKULUA NAHITAEZKOTASUNA
 4. ARTIKULUA ZERGA EGITATEA
 5. ARTIKULUA SUBJEKTU PASIBOAK
 6. ARTIKULUA ARDURADUNAK ETA ONDORENGOAK
 7. ARTIKULUA.- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA
 8. ARTIKULUA ZERGA KUOTA
 9. ARTIKULUA.- HOBARIAK
 10. ARTIKULUA HOBARIAK IZAPIDETZEA
 11. ARTIKULUA KUDEAKETA ARAUAK
 12. ARTIKULUA ORDAINKETAK
 13. ARTIKULUA ZATIKATZEA
 14. ARTIKULUA BETEBEHAR FORMALAK
 15. ARTIKULUA ESKAERAK EGIAZTATZEA
 16. ARTIKULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK
 17. ARTIKULUA ERREKURTSOAK ETA ERREKLAMAZIOAK
- XEDAPEN OSAGARRIAK
- XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA
- AZKEN XEDAPENA

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

1. artikulua. Oinarriak, izaera, xedea eta aplikazio eremua

1.- Kuadrillak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen foru arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arautzailearen 23. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hondakinak jaso eta deuseztatzeko zerbitzu prestazioarengatiko tasak ezartzen ditu eta zerga ordenantza honek arautuko ditu tasa horiek.

2.- Tasa honen xedea da udal eskumeneko hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko zerbitzua ematea. Hondakin horiek 7/2022 Legean eta zerbitzuaren ordenantza arautzailearen 13. artikuluan definituta daude eta zerbitzu prestazioaren barne egongo dira toki erakundeei legea betez nahitaez kudeatu behar dituzten hondakinak, zerbitzu prestazioaren forma edozein izanda ere.

3.- Ordenantza hau Arabako Mendialdeko Kuadrillan aplikatuko da (aurrerantzean, kuadrilla) eta udalerri hauek osatzen dute: Arraia-Maeztu, Kanpezu, Bernedo, Lagran, Urizaharra eta Harana.

4.- Kuadrillak eskuragarri jarritako bitartekoetan, instalazioetan edo zerbitzuetan hondakinak uzten dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek nahitaez bete behar dute ordenantza honetan eta berau interpretatu edo garatzeko agintzen diren arauetan xedatutakoa.

2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia

1.- Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen foru arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arautzailearen xedapenekin bat etorriz, udal eskumeneko hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzu prestazioaren tasa arautzen eta exijitzen da.

Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (artikulu hori hondakinak sortzearen kostuei buruzkoa da), toki eskumeneko hondakinak kudeatzearen kostuei dagokienez, eta toki erakundeei buruzko araudiarekin bat etorriz, legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita hiru urteko epean tasa bat edo zergez kanpoko ondare prestazio publikoa, espezifikoa, bereizia eta ez defizitariora ezarriko da eta horrek ahalbidetuko du hondakinak sortzearen arabarako ordainketa sistemak ezartzea eta kudeaketaren benetako kostua adieraziko du (zuzena edo zeharkakoa)..." (ordenantzan ezarritakoa).

2.- Ordenantza honetan arautzen diren jarduerai eta jokaerei aplikatzekoa zaien araubide juridikoa osatzen dute hauek: Arabako Mendialdeko Kuadrillan udal hondakinen bilketa

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

arautzen duen esparru ordenantza, zuzenean aplikatzekoa den Europako araudia, Ekonomia zirkularerako hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea eta Euskadiko ingurumen administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea.

3. Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen foru arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arautzailearekin bat etorritik, tasa hauei aplikatzekoak zaizkie zergen foru arau orokorrean araututa dauden kudeaketari, likidazioari, ikuskaritzari, diru bilketari, zerga arau hausteei eta zehapenei buruzko arauak.

3. artikulua. Nahitaezkotasuna

Hondakinak biltzeko zerbitzu prestazioa orokorra eta nahitaezkoa da. Beraz, udal antolamenduaren zonetako higiezinaren titularrek eta erabiltzaileek erabiltzen dutela kontuan hartuko da. Higiezin horien artean egongo dira etxebizitzak, egoitzak, ikastetxeak, osasun establezimenduak, ostalaritzakoak eta industria, merkataritza edo zerbitzu jarduerak egin daitezkeen edo egiten diren lokalak edo bestelako erabileretarako zuzenduta daudenak.

4. artikulua. Zerga egitatea

1.- Tasaren zerga egitatea da toki eskumeneko hondakinak nahitaez biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko zerbitzu publikoa ematea. Hau da, etxeko hondakinak eta arriskutsuak ez diren merkataritza hondakinak edo etxeko hondakin asimilagarriak. Gainera, zabortegetara garraiatu eta tratatu egin beharko dira. Kudeaketa zuzena izan daiteke ala kontratistaren edo tokiko erakunde enpresa baten bitartez ere egin daiteke.

Prestazioa egindakotzat joko da higiezina kokatuta dagoen zonan hondakinak biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta martxan dagoenean.

2.- Kasu hauek ez dira tasari atxikita egongo:

- a) Legez aurri gisa deklaratu diren higiezinak.
- b) Bizigarritasun baldintzarik ez duten etxebizitzak, hau da, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean horrela deklaratuak izan direnak.
- c) Katastro erabilera hauek esleituta dituzten higiezinak: trastelekuak, lokalak egituren, garajeak, barneko urbanizazio obrak, lorezaintza, eraikin txiki osagarriak eta orubeak, salbu eta horietan jarduera ekonomikoak egitea.

5. artikulua. Subjektu pasiboak

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

1. Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisikoak eta juridikoak (jabeak, gozamenidunak, bizilagunak, errentariak edo prekarioak) eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamentu ahalordea edo gozamen ahaliduna baliatzearen zain dauden jarauntsiak, baldin eta kuadrillak ematen dituen udal zerbitzuen edo jardueren onuradunak edo eraginpekoak badira edo horiek eskatzen badituzte.

2. Zergadunaren ordezeko kontzeptuan subjektu pasibotzat joko dira tasa sortzen den uneko etxebizitzaren, lokalen eta establezimenduen jabeak. Hala dagokionean, onuradunek ordaindutako kuotak jasan ahalko dituzte.

6. artikulua. Arduradunak eta ondorengoak

1. Arduradunak izango dira pertsona fisikoak eta juridikoak, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 41. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

2. Ondorengoak izango dira pertsona fisikoak eta juridikoak, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 39. eta 40. artikuluetan xedatutakoa betetzen dutenak.

7. artikulua. Sortzapena eta zergaldia

1. Udal eskumeneko hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko nahitaezko zerbitzu prestazio publikoarengatik tasa zerbitzu prestazioa hasten den unean sortuko da.

2. Tasa urtean behin sortzen denean, urtarilaren 1ean izango da eta zergaldia urte naturala izango da.

3. Hala eta guztiz ere, zerbitzu prestazioa higiezinaren titulartasuna edo egoera fisikoa aldatu delako hasten edo bukatzen denean, tasa zerbitzu prestazio hori hasten den unean sortuko da. Kasu horretan, kuota urteko oinarri aldian hainbanatuko da.

8. artikulua.- Zerga kuota

1. Zerga kuota urtekoa da eta ezin da murriztu. Eranskinean jasota dagoen hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta suntsitzeko zerbitzuarengatik tarifa taulan zehaztuta dago.

Ondorio horietarako, kontuan hartzeko azalera higiezinaren eraikitako azalera da, higiezinaren katastroan agertzen den bezala eta lokal edo etxebizitza unitatearen arabera; modu horretan, subjektu pasiboen kopurua bat etorriko da higiezin berean dauden bereizitako etxebizitza edo lokal kopuruarekin.

Tarifak higiezinaren erabileraren eta azaleraren arabera ezarriko dira.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

Tarifa bakoitzean deskribatutako jardueren zerrenda ez da zorrotza. Beraz, berariaz jaso ez diren antzeko jarduerak ere aipatzen dira.

2. Higiezin berean erabilera bat baino gehiago dagoenean, erabilera garestienaren tarifa aplikatuko da.

3. Merkataritza, industria eta manufaktura establezimenduek (sortzen dituzten hondakin asimilagarriei dagokienez) eta Jarduera ekonomikoen gaineko zergari atxiki gabe edo zergatik salbuetsita dauden eta tarifen taulan jasota ez dauden lokalek, nolabait beren antzekotasuna dela-eta, egokiena den tarifen ordainduko dituzte zergak, Arabako Mendialdeko Kuadrillako presidentetzak arrazoitutako ebazpena eman eta gero.

9. artikulua.- Hobariak

1. Konpostaje indibidualaren hobaria

Konpostaje indibiduala egiten duten erabiltzaileek higiezinari tarifen taulan esleitutako kuotan % 10eko hobaria aplikatzeko aukera izango dute.

Horretarako, kuadrillako konpostaje indibidualaren erabiltzaileen erregistroan inskribatuta egon beharko dira eta konpostaje indibiduala egiten ari direnaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Etxebizitza/higiezin bakoitzeko hobari bakarra aplikatuko da.

Erabiltzaileek alta inprimaki bat izango dute eskuragarri eta inprimaki hori orokorrean kuadrillan idazkiak eta eskaerak aurkezteko xedatutako bitartekoetan entregatu ahalko da.

2.- Konpostaje komunitarioaren hobaria

Konpostaje komunitarioa egiten duten erabiltzaileek higiezinari tarifen taulan esleitutako kuotan % 5eko hobaria aplikatzeko aukera izango dute.

Horretarako, kuadrillako konpostaje indibidualaren erabiltzaileen erregistroan inskribatuta egon beharko dira eta konpostaje indibiduala egiten ari direnaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Etxebizitza/higiezin bakoitzeko hobari bakarra aplikatuko da.

Erabiltzaileek alta inprimaki bat izango dute eskuragarri eta inprimaki hori orokorrean kuadrillan idazkiak eta eskaerak aurkezteko xedatutako bitartekoetan entregatu ahalko da.

3. Gizarte hobariak

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

Etxebizitza erabilera duten higieziei aplikatzekoa zaien tarifar ehuneko hauek hobaria izango dute, betiere, subjektu pasiboa bertan errolatuta badago eta familia unitateak hurrengo errentak gainditzen ez baditu. Dagokion etxebizitzan errolatutako kide kopurua hartuko da kontuan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan zehazten den familia-unitatea hartuko da aintzat. Horretarako, bikote ezkondua eta izatezko bikotea parekatu egingo dira, baldin eta dagokion erregistroan legez inskribatuta badaude.

Etxebizitza bakoitzeko hobari bakarra aplikatuko da.

GIZARTE HOBARIAK			
Kide kop.	1. tarte DSBEra arte	2. tarte DSBE LGSra arte	3. tarte LGS baino errenta handiagoa, gehienez ere 1,5 x LGS
1 kide	% 20	% 15	% 0
2 kide	% 25	% 20	% 15
3 kide	% 30	% 25	% 20
4 kide	% 35	% 30	% 25
5 kide edo gehiago	% 40	% 35	% 30

Konpostaje kolektibo eta indibidualaren hobariak ezingo dira metatu. Hau da, beraien artean bateraezinak izango dira. Hala eta guztiz ere, gainerako hobariak bateragarriak izango dira, baldin eta guztien artean kuotaren % 50 gainditzen ez badute.

10. artikulua.- Hobariak izapidetzea

1. Presidentetzak eskumena izango du zerga hobariak aitortzeko eskaerak ebazteko.
- 2.- Hobaria interesdunak hala eskatuta aplikatuko da eta eskaeraren ondoren sortzen den zergatik aurrera emango da. Salbuespena zerga hobariak izango dira; horiek eskaera egiten den zergaldian aplikatuko dira. Azken kasu horretan, zergadunek luzatu ezin izango den 30 egun naturaleko epea izango dute eskaera kuadrillan erregistratzeko,

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

indarreko araudiarekin bat etorritik egindako likidazioa jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita (jakinarazpen indibiduala edo erroldan argitaratzea).

Kuadrillak konpostaje indibidualaren eta komunitarioaren jarraipena egin ahalko du, egiaztatzeko erabiltzailea benetan konposta egiten ari dela.

Gizarte hobarien kasuan, hobariaren eskaerarekin batera zerga hobariaren aurreko urteko PFEZren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute (bizikidetzaren unitateko kide guztientzat) edo, bestela, aitortutako egiteko obligaziorik eza egiaztatzen duen ziurtagiria, baita familiaren errolda ziurtagiria ere.

Eskaera sinatzeak esan nahi du kuadrillari baimena ematen zaiola espedientea ebazteko beste administrazio publikoetan egin behar dituen kontsulta guztiak egiteko.

Eskaerarekin batera adinean nagusiak diren beste kide batzuk bizi badira, horiek ere baimena eman beharko dute beren datuak beste administrazio publiko batzuetan kontsultatzeko.

Horren guztiaren inguruan behar bezala informatuko da eskaera inprimakian.

3.- Aurreko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren errentariak edo erabiltzaileek hobari eskaerak aurkezteko aukera izango dute tasaren zergadunen subjektu pasibo gisa.

Kasu horietan, hobaria subjektu pasibo ordezkariari bidaltzen zaizkion likidazioetan aplikatuko da.

4.- Hobaria urtebeterako emango da, betiere, tasa sortzen den egunean baldintzak betetzen badira.

Epe hori amaitzen denean, interesdunak eskaera berriro egin beharko du aurretik azaldu den bezala.

Aurrekoa gorabehera, onuradunek kuadrillari jakinarazi beharko dizkiote hobaria aplikatzeko egoeren aldaketak. Zerga hobaria aplikatzeko baldintzak urratzeak berekin ekarriko du hori gertatzen den zergalditik aurrera hobaria aplikatzeko eskubidea galtzea. Aldaketak jakinarazten ez badira, oker aplikatutako zerga hobaria erregularizatuko da eta berandutze interesak eskatuko dira.

5. Hobari horiek zergadunen alde aitortu eta aplikatuko dira, betiere, kuadrillan zerga betebeharrak egunean badituzte.

11. artikulua. Kudeaketa arauak

1. Hau izango da zerga ondorioetarako zerga egoitza:

a) Pertsona naturalena, ohiko bizilekua.

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

b) Pertsona juridikoa, egoitza soziala.

Zergadunak beste helbide bat esleitu ahal izango du, berea edo bere ordezkariarena, eta helbide berri horretan jasoko ditu administrazioaren jakinarazpenak.

Edonola ere, subjektu pasiboek nahitaez deklaratu beharko dituzte etxebizitza aldaketak. Horretaz gain, kuadrillak bidalitako jakinarazpenetan detektatu ahalko dituzten akatsak ere jakinarazi beharko dituzte.

Subjektu pasiboak deklaraturako helbidea —edo kuadrillak bere informazio-iturrien arabera ziurtatu duena— zergadun bakoitzari lotutako kudeaketa-elementu gisa jasoko da eta helbide horretara bidaliko dira zerga kudeaketako jakinarazpen guztiak.

2. Erroldan alta ematen denean banaka jakinaraziko da. Horretarako, zergadunak kuadrillan alta emateko eskaera aurkeztu beharko du eta zerbitzuari atxikitako higiezinaz zein den eta aldaketa noiztik aplikatuko den esan beharko du.

Kuadrillak altaren likidazioa banaka eman eta jakinaraziko du eta kuota hainbanatuko du.

Kuadrillak ofizioz jakiten duenean alta berria egin dela eta zergadunak ez duela deklaratu edo deklaraturako zerga elementuak okerrak badira, kuadrillak egiaztapen prozedura hasiko du, albo batera utzi gabe dagozkion erregularizazioak edo zehapenak.

Erroldan sartu eta gero ez da beharrezkoa izango banaka jakinaraztea eta hiri hondakin solidoen tasa errolda bitartez kudeatuko da. Hala, kolektiboki jakinaraziko da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa betez.

3.-Zergadunek, erroldan aldaketa gertatu eta 30 egun naturaleko epean, kuadrillari jakinarazi beharko diote aldaketa hori.

Kuadrillak ofizioz jakiten duenean aldaketa gertatu dela, dagozkion aldaketak egin eta subjektu pasiboak jakinaraziko dizkie, dagozkion erregularizazioak eta zehapenak albo batera utzi gabe.

Aldaketa horiek indarrean jarriko dira tasan gertatu eta hurrengo sortzapenean.

4.- Lehendakaritzak eskumena izango du erabiltzaileek errolda aldaketen eta tasaren likidazioen inguruan aurkeztutako erreklamazioak ebazteko.

12. artikulua.- Ordainketa

1.- Ordainketa zergadunek eta hirugarrenek egin ahalko dute eta zorraren betebeharra oso-osorik desagertuko da.

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

Zorra ordaindu duen hirugarrenak ezingo dio administrazioari ordainketa itzultzeko eskatu eta ezingo du zergadunaren bestelako eskubiderik egikaritu, albo batera utzi gabe bide zibilean legozkiokeen ekintzak.

2.- Zorra kuadrillaren egoitzan edo erakunde kolaboratzaileen egoitzan ordainduko da.

3.- Borondatezko aldia amaitu ondoren zorrak premiamendu bidean eskatuko dira eta, hala bada, gertatzen diren premiamendu errekgua, berandutza korrituak eta kostuak zorpetuko dira.

13. artikulua- Zatikapena

1.- Zergapekoek borondatez ordaintzeko epealdian edo ordainarazteko epealdian dauden zorrak eta zehapenak ordaintzeko geroratzea eta zatikatzea eskatu ahal izango dute diruzaintzako egoeragatik, behin-behinean, ezin dituztenean diru sarrerak ezarritako epeetan egin.

Zatikatzea interesdunek hala eskatuta egingo da.

2.- Zergapekoei ez zaie zorren gerorapena edo zatikapena emango eskabidea egiterakoan honako inguruabarrak gertatzen badira:

- a) Zergapekoek beharrezko autolikidazioak edo aitorpenak, baita formalak ere, aurkeztu ez badituzte edo kuadrillak eskatutako zergen arloko informazioa edo lankidetzak ematen ez badute.
- b) Zergapekoek ordainarazteko epealdian ordaintzeke dituzten zerga zorrak dituztenean, zor horiek bermatuta, geroratuta edo zatikatuta ez badaude. Hala ere, eta salbuespen gisa, aparteko beharra duten kausak daudenean, inguruabar hori ez da gerorapena edo zatikapena lortzeko oztopo izango kuadrillako kudeatzaileek aldeko txostena egiten badu. Kasu horietan, geroratzea edo zatikatzea ematea lehendakaritzak ebatziko du.
- c) Era berean, aurretik geroratu edo zatikatu diren zergek ezingo dute gerorapena edo zatikapena lortu, ez bada horretarako beharra eta hori betetzea bideragarria dela behar bezala egiaztatzen. Kasu horietan, geroratzea edo zatikatzea ematea lehendakaritzak ebatziko du.
- d) Ez zaizkie emango eskaera egin eta aurreko ekitaldietan geroratzeen edo zatikatzeen epeak urratu dituzten subjektu pasiboak.

3.- Zerga zatikatzeko ezinbesteko baldintza izango da egin beharreko ordainketak bankuan helbideratzea.

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

4.-Zatikatzea ematea hautazkoa izango da. Horretarako, aldi batean ordainketa ezarritako epean egitea eragozten duen egoera ekonomiko-finantzarioa aztertu beharko da.

Kuadrillak aukera izango du banku abala edo nahikoa berme eratzea eskatzeko, baldin eta zergapekoaren zorrak, guztira, 20.000 euro baino gehiago badira. Aurreko paragrafoak ezarritakoaren ondorioetarako, 20.000 euro baino gehiagoko kopuruengatik emango da abala edo beste bermeren bat.

Hala eta guztiz ere, kuadrillak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango ditu zergapekoaren diruzaintzako egoerak zorra ordaintzeko ezarritako epealdian diru sarrera egitea eragozten diola egiaztatzeko.

5.- Lehendakaritzak eskumena izango du atzeratzeko edo zatikatzeak eskaerak ebazteko.

6.- Eskaerak kuadrillaren lehendakaritzara bidaliko dira ordaintzeko borondatezko epean eta datu hauek izan beharko dituzte:

a) Izen abizenak edo sozietatea edo sozietate izen osoa, zerga identifikazio zenbakia eta ordaintzera behartutakoaren zerga egoitza eta, hala denean, ordezkatzeko duen pertsonarena.

b) Atzeratzea edo zatikatzea eskatu den zorraren identifikazioa; gutxienez zenbatekoa eta kontzeptuak adieraziko dira.

c) Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko arrazoiak.

Ordainarazteko epealdian dauden zorrak geroratzeko edo zatikatzeak eskabideak zergapekoari enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia jakinarazi arte aurkeztu ahal izango dira.

7.- Borondatezko epean dauden zorren kasuan, urteko kuota bi hileko ordainketetan egitea eskatu ahal izango da; lehenengoa aipatutako epe horretan egin beharko da eta hurrengo kuota hurrengo bi hilabeteen barnean.

8.- Ordaintzeko betearazte aldian dauden zorren kasuan, ordainketaren maiztasuna eta hilean gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa lehendakaritzak finkatuko du.

14. artikulua.- Obligazio formalak

1. Altak indarrean jarriko dira zerga ordaintzeko obligazioa sortzen den urteko lehen egunetik aurrera.

Bajek egin eta hurrengo hiruhilekoaren lehen egunetik aurrera izango dute ondorioa.

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

2. Zerga ordaintzeko obligazioa sortu eta hurrengo 30 egun naturaleko epean subjektu pasiboek alta deklarazioak edo subjektu pasiboari buruzko aldaketak, zerbitzu modalitatea eta tasan ondorioak dituen higiezinaren aldaketak aurkeztu beharko dituzte (horretarako, aldaketak agertzen diren agiri publikoak entregatuko dituzte).

3. Baja deklarazioak subjektu pasiboa izateari uzten zaion egunetik aurrera zenbatzen hasita epe berean izapidetu behar dira.

4. Salbuespenak edo kuota murrizketak jasotzeko interesdunek eskaera egin eta agirien bidez justifikatu beharko dute urtean behin.

15. artikulua. Eskaerak egiaztatzea

Kuadrillak ahala izango du deklarazioak eta kuota salbuesteko eta murrizteko eskaerak egiazkoak direla ikertzeko. Datuak faltsuak badira, ustezko arau hausleak ez ditu hobari horiek izango epe mugagabea.

16. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak

1.- Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 183. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio zergei buruzko arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagozkion zehapenen kasuan ere.

2.- Zehapenak lehendakaritzak jarriko ditu, baina aurretiaz erabiltzaileei zehapen posibleen berri emango zaie eta espediente egingo da eta espediente horretan arau hausleari entzun egingo zaio. Edonola ere, ezarri ahalko diren zehapenak gorabehera, jabari publikoko ondasunetan sortutako kalteak ordaindu beharko dira eta aurretik zerbitzu teknikoek ebaluatuko dituzte.

17. artikulua.- Baliabideak eta erreklamazioak

1.- Administrazio egintzak ez diren aginduen edo egitatezko egoeren aurka erreklamazioa jartzeko aukera egongo da kuadrillaren lehendakaritzan.

2.- Arabako Mendialdeko Kuadrillako organoek —ordenantza honetan xedatutakoa betez eta gai honen inguruan modu osagarrian aplikatzekoa den legeriaren arabera— emandako egintzen eta ebazpenen aurka Administrazio publikoen araubide juridikoaren legean eta Administrazio prozedura erkidearen legean xedatutako baliabide araubidea aplikatuko da.

3.- Zerbitzu prestazio honetarako tasen zerga kudeaketaren egintzak aurkaratzen badira, Arabako zergen foru arau orokorrean xedatutakoa beteko da.

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

Xedapen gehigarriak

Lehenengoa.- Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztirako aplikatzekoa den administrazio araudia aplikatuko da.

Bigarrena.- Arabako Mendialdeko Kuadrillaren lehendakaritzak ahala izango du ordenantza honetako aurreikuspenak garatzean beharrezko xedapenak agintzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Ordenantza hau indarrean jartzen denean indargabetu egingo da egun horretara arte indarrean egon den hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzu prestaziorako ordenantza arautzailea eta fiskala.

Azken xedapenak

Bakarra. Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta indargabetu edo aldatu arte.

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

ERANSKINA

HONDAKINAK GARRAIATU ETA DEUSEZTATZEKO BILKETA ZERBITZUAREN TARIFEN TAULA			
EPIGRAFEA	TALDEA	AZPITALDEA	ERREFERENTZIARAKO TARIFA EREDUA
1 epigrafea.	ETXEBIZITZAK	ETXEBIZITZAK. HURBILEN DAGOEN EDUKIONTZIAREKIKO DISTANTZIA <= 500 m	118,32
		500 m < ETXEBIZITZAK. HURBILEN DAGOEN EDUKIONTZIAREKIKO DISTANTZIA <= 1000 m	59,16
		ETXEBIZITZAK. HURBILEN DAGOEN EDUKIONTZIAREKIKO DISTANTZIA > 1000 m	11,83
2 epigrafea.	SALTOKIAK. ELIKADURAREKIN LOTUTA EZ DAUDEN MERKATARITZA JARDUERAK EGITEN DITUZTEN LOKALAK EDO BESTELAKO HIGIEZINAK	AZALERA <= 150 M2	236,64
		AZALERA > 150 M2	295,80
	SALTOKIAK. ELIKADURAREKIN LOTUTA DAUDEN MERKATARITZA JARDUERAK EGITEN DITUZTEN LOKALAK EDO	AZALERA <= 150 M2	283,97
		AZALERA > 150 M2	354,96

ARABAKO MENDIALDEKO

KUADRILLA

(ARABA)



CUADRILLA DE

MONTAÑA ALAVESA

(ÁLAVA)

	BESTELAKO HIGIEZINAK		
3 epigrafea.	BULEGOAK. JARDUERA PROFESIONAL ARTISTIKOAK, TEKNIKOAK, ADMINISTRAZIO KOAK EDO ZERBITZUENAK EGITEN DITUZTEN LOKALAK EDO BESTELAKO HIGIEZINAK	AZALERA <= 150 M2	165,65
		AZALERA > 150 M2	207,06
4 epigrafea.	OSTATUAK	AZALERA <= 200 M2	310,59
		AZALERA > 200 M2	414,12
5. epigrafea.	HAZTEGIAK ETA BILTEGIAK		59,16
6. epigrafea.	TABERNAK ETA GIZARTE ETXEAK		354,96
	JATETXEAK		473,28
7. epigrafea.	IKASTETXEAK	JANTOKIRIK GABE	165,65
		JANTOKIAREKIN	591,60
8. epigrafea.	KLINIKAK, ANBULATORIOAK ETA OSASUN ARRETARAKO BESTELAKO ZENTROAK		177,48
	EGOITZAK ETA OSPITALEAK, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROAK ETA KOMUNITATE ETXEBIZITZA PUBLIKOAK EDO PRIVATUAK		591,60
9. epigrafea.	ZENTRO EDO ERAIKIN OFIZIALAK ETA	AZALERA <= 2000 M2	177,48
		AZALERA > 2000 M2	236,64

ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
(ARABA)



CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA
(ÁLAVA)

	ZENTRO PUBLIKOAK		
10. epigrafea	INDUSTRIAK		295,80
11. epigrafea.	BESTELAKO HIGIEZINAK, INSTALAZIOAK ETA JARDUERAK	ELKARTE GASTRONOMIKOAK	177,48
		ELIZAK/PARROKIAK/KOMENTUAK	118,32
		KUARTELAK	1.183,20
		SUHILTAILEAK	354,96
		GASOLINDEGIAK	236,64
		AUTOKARABANENTZAKO LEKUAK ETA KANPINAK	310,59

Santikurutze Kanpezun, 2025eko abenduaren 4an

Presidente

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ